

SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2017KO UZTAILAREN 5EKOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, 2017KO UZTAILAREN 8TIK UZTAILAREN 31RA ARTE DEITUTAKO GREBAN ZEHAR BIZKAIKO HIRUGARREN ADINEKOEN ZENTRO PRIBATUEN SEKTOREAN EMATEN DEN GIZARTEARENTZAKO EZINBESTEKO ZERBITZUA BERMATZEN DUENA.**

ELA sindikatuaren ordezkariak greba deitu du 2017ko uztailaren 8tik 2017ko uztailaren 31ra, bi egunak barne, Bizkaiko hirugarren adinekoen zentro pribatuen sektorean (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko zentroak eta tutoretzapeko apartamentuak).

Deialdiaren idazkiaren arabera, hauek dira grebaren arrazoiak: *"gaur arte egindako negoziazioen porrota eta ugazaben elkarteen akordio-borondaterik eza", eta "CEBEKek ordezkaturako patronalek (GESCA, LARE eta ELBE) onar dezaten" "2016. urterako eta hurrengoetarako negoziatu beharreko Bizkaiko Egoitzen Sektoreko Hitzarmenean, besteak beste, gai hauek hobetuta sartzea: igoerak soldatan eta hitzarmenak jasotzen duen ordainketa-egituran, lanaldia 1.592 ordura murriztea, ABEak % 100 konpentsatzea, lizentziak eta baimenak, gehikuntza eta hobekuntza ratioetan (orokorrak eta presentzialak) eta, ondorioz, egoitzetan erabiltzaileei zuzeneko arreta ematen dieten langileen (gerokultoreen) kopuruan ere. Behar adina berme ematea sektoreko hitzarmena aplikatuko dela".*

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposaturako helburua lortu ahal izatea, edo "egokitasun-judizioa"; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo "premia-judizioa"; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo





abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —etsi, Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan— haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiotkeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ezak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Hogeita lau egun jarraituko greba da, eta lanaldi osoko greba da; uztaileko 24 egun hartuko ditu. Gainera, kontuan hartu behar da grebaren eraginpeko zerbitzuen erabiltzaileen autonomia murriztua dela bakoitzaren ezintasun-mailaren arabera.

Konstituzioko 15. eta 43.1 ataletan, bizia, osotasun fisikoa eta morala, eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, herri-agintariei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ez daitezke babesik gabe geratu. 10.1 artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, "Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizartratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, euren behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko". Horrek esan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak gutxienezko zerbitzuak finkatu behar dituela komunitateari ezinbesteko zerbitzuak bermatzearren.

Aurreko guztia kontuan izanik, Bizkaiko hirugarren adinekoen zentro pribatuen sektoreko greba-deialdiari dagokionez, gobernu-agintaritzak dagozkion neurriak hartu beharko ditu gobernuak eskaintzen duen egoitza-arretan ezinbesteko zerbitzuari eutsiko zaiola bermatzeko, betiere honako arau hauetan ezarritakoari jarraituz: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan eta bat datozenetan; Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan, eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluen arabera.

Horren haritik, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko —hala badagokio— eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia,





apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailearen 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia baliogabetu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura eman dezaten ahalbidetuz, gutxieneko zerbitzuak ezartzeak murriztailea izan behar duela oinarritzat hartuta. Horregatik, eta dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, eskumen horrek, murrizteaz gainera, proportzionaltasun egokiari eutsi behar dio babestu beharreko gainerako eskubideekiko, eta murrizketa horiek ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira.

Hirugarren adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak "ezinbestekoak" dira, aldez aurretik aipatu ditugun araei jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekoak dira, osasun-gabezia larriak dituztenak, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dutenak, autonomiari eusteko eta legeak onartutako mendetasun-maila guztien arretarako; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1 artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

LEHENA.- Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza-harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituena, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko dira ezinbestean.





BIGARRENA.- Eguneko zentroko zerbitzuak mendetasun-egoeran dauden pertsoneri arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaitzuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Araudiak honako zentro mota hauek bereizten ditu: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoa eskaintzen dituztenak.

HIRUGARRENA.- Bizkaiko hirugarren adinekoen zentro pribatuen sektorean, aipatutako tipologiaren arabera, 147 egoitza daude (10.099 leku), 53 eguneko zentro (1.898 leku), 56 etxebizitza komunitario (670 leku) eta 7 tutoretzapeko apartamentu (844 leku).

LAUGARRENA.- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendetasun-gradu ezartzen dira, eta mendekoen arreta gradu horren arabera zehazten da. Hori horrela izanik, «mendetasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jarduera batzuk gauzatzeko, eta, beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala guztiz galdu izanaren ondorioz, beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute. «Mendetasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek laguntzea; nolahi ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendetasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar dute, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.

BOSGARRENA.- Egoiliarren ezintasun-mailak eta horren ondoriozko mendetasunak laguntza eta arreta integralaren eta integratuaren hainbat maila eratu ditu pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

SEIGARRENA.- Sektore horretan pertsoneri ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozialetan. Zalantzarik gabe, greba-egoeran eutsi beharreko oinarrizko zerbitzuak «arreta zuzeneko zerbitzuak» dira (osasun-arreta, erizaintza, arreta geriatrikoa, etab.), laguntza behar duten pertsonekin ondorio zuzenak dituztelako; eta, neurri txikiagoan, pertsona horiek jasotzen dituzten bestelako zerbitzuak, aurreko zerbitzuen mende daudelako, zeharka bada ere (garbiketa, garbitegia...), edo egoitzetako instalazioen eta zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzeko direlako.

Arreta zuzenaren oinarrizkotasunari buruzko irizpide bera aplikatu behar da eguneko zentroetan ere.





«Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, zirkunstantziaren arabera, higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen –bereziki, mendetasun handia dutenen– osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Altxatzeko, garbitzeko, jantzeko edo janaria ahartzeko laguntzak ere «arreta zuzeneko zerbitzutzat» jotzen dira.

ZAZPIGARRENA.- Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginetara dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

Alabaina, eta Agindu honetan aurrerago zehazten den bezala, zentro bateko erabiltzaileen %70ek baino gehiagok II. edo III. graduako mendetasun aitortua badute, gerokultoreen edo parekatuen kopurua egun osoan zehar handitu beharko da, hala erabaki baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2017ko apirilaren 26ko Kautelazko Neurriei buruzko Autoaren bidez.

ZORTZIGARRENA.- Grebaren eraginpeko zentroen espazio-konfigurazioa ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonetara arriskurik sortu gabe emango direla.

BEDERATZIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzerazinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekoen eta mendetasun handikoen kasuan batez ere), sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra kronikoa izaten da, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, zainketa horiek behar dituztenen osasuna arriskuan jar daiteke.

HAMARGARRENA.- Sukalde-zerbitzua mantendu beharko da elikagaiak prestatzeari dagokionez; alabaina, berriazko mediku-agindu zehatzik ez badago, ahalik eta modu xume eta sinpleenean prestatuko dira, erabili eta botatzeko baliabideak erabiliz eta zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea eskatzen duten protokoloak eta metodologiak aplikatuz. Halaber, garbiketa-zerbitzuek, zeharkakoak izan arren higienea bermatzeko beharrezkoak direnez, –intentsitate txikiagoz– egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesteko beharrezkoak diren oinarritzko lanak egin beharko dituzte.



HAMAİKAGARRENA.- Garbitegi-zerbitzuetan, halakorik duten zentroetan, mihiseria guztia eta zerbitzuari dagozkion gainerako lanabesak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbituko da. Aipatutako arropa guztiaren artean, egoiliarrekin zuzeneko erlazioa duena jo behar da eman beharreko zerbitzutzat, eta arau honen xedapen zatian zehazten da.

HAMABIGARRENA.- Mantentze-lanetako zerbitzuak ezinbestekoak ez, baina oso lagungarriak izan badira greba honetan gutxienez hartutako gainerako zerbitzu eta instalazioen funtzionamendua egokia izan dadin. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragin lezaketen balizko ezustekoei erantzuna eman beharko zaie babestu behar diren gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko.

HAMAHIRUGARRENA.- Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendetasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea oso zaila da.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarrizko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarrizko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten eta greba egintzat har dadin.

HAMALAU GARRENA.- Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak ezartzen ditu gizarte-baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langileratioak, langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

HAMABOSGARRENA.- Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroak ere, zeinetan, oro har, langile gutxiago baitaude egoitzetan baino, antzeko kasuan daude; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. zenbakia, hain zuzen, langileei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaitzak xedatzen duenez, "greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da delako izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada".



Zentro horietan ezinbesteko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendetasun-egoeran dauden pertsonen garraioa, horien desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako ezinbesteko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira mugikortasun ahalmenera egokitutako bestelako garraio bideen bitartez egin. Bestela, pertsona horiek ezin izango lituzkete jaso prebentziorako, mantentzerako eta «eguneroko bizitzarako oinarrizko jarduerak» izenekoak hobetzeko beharrezkoak diren arreta eta zerbitzu asistentzialak, terapeutikoak eta sanitarioak (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 24. artikuluan bermatzen diren moduan). Gai horri buruz, gobernu-agintaritzak honek ehuneko jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo baitu zerbitzuaren “helburuak” zehaztea, adierazi den moduan.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariatz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduaz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio mota horri dagokion oinarrizko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarrizko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala eta guztiz ere, Salaren iritziak xedapen horri arrazoitzea falta zaio, “zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik”.

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealitate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela-eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen. Bizkaian dauden 53 eguneko zentroetan oso egoera desberdinak daude garraio bereziaren kudeaketari dagokionez, eta, gutxienez, hiru modalitate aurki ditzakegu: zerbitzu osoa azpikontratatuta duten zentroak; bai gidaria bai laguntzailea beren langiletzat dituzten zentroak, eta, garraioa azpikontratatuta izan arren, beren laguntzaileak dituzten zentroak.

Greba-eskubidea mugatzeari dagokionez –hori da kasu honetan kezkatzen gaituena– dagoen arazoa aipatzen dugunean, zerbitzu hori emateko eskusiboki kontratatuta dauden eguneko zentroetako langileez ari gara; izan ere, erabiltzaileen desgaitasunengatik zerbitzua gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek ematea beharrezkoa den neurrian, ezin da % 100etik beherako portzentajea eman. Bestalde, kasu horietan ezin da, ezta ere, egin beharreko garraioaren murrizketa portzentalik ezarri, zerbitzua eman arren zerbitzu hori txikiagoa izateko moduan, langileek egin beharreko lanaldia ohi baino gehiago luzatzea ekarriko bailuke horrek. Beraz, egoera honetan, garraio bereziaren bidez ematen den ezinbesteko zerbitzua bermatzeko, litekeena da langile horietako batzuei, zerbitzua eman dezaketen bakarrak direnez, dagokien greba-eskubidea guztiz murriztea, erabiltzaileen mugikortasunerako gaitasunei behar bezala egokituta dauden beste garraio bide batzuk ez baldin badaude behintzat.

HAMASEIGARRENA.- Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.





Orain arte esandakoarekin bat etorri, eta guztia laburbiltze aldera, Bizkaiko hirugarren adinekoen zentro pribatuen sektorean 2017ko uztailaren 8tik 2017ko uztailaren 31ra deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du "arreta zuzeneko zerbitzuak" emateko eta oinarritzko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

HAMAZAZPIGARRENA.- Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

HAMAZORTZIGARRENA.- Hori dela-eta, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuko 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da eta gatazka honen eraginpean hartutako alderdi guztiei (enpresa-elkarteak eta sindikatu-ordezkaritza) entzunaldia eskaini diegu, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuari ere, alegazioak egin zituzten gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko premiaren inguruan, eta bete beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa zituzten, hala badagokio.

Irailaren 21etik 30era eta urriaren 1etik 4ra bitarteko Bizkaiko hirugarren adinekoen zentro pribatuen sektorerako emandako 2016ko irailaren 19ko Aginduaz geroztik, %70ean ezarri da, egoitzetarako, gerokultore edo parekatuen kopurua, salbu eta bazkalorduen ohiko ordutegietan eta 08:00tik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara (kasu horietan %10 gehiago); une horretatik aurrera, beraz, aldatu egin zen lehenago aplikatzen zen irizpidea, lanean jardun behar zuten gerokultoreen eta parekatuen kopurua % 50ean ezartzen zuena, %10 gehituz aipaturiko aldi horietan; izan ere, sektoreak aurrekoan egindako greban arazoak sortu ziren, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuak egindako ikuskapen-jarduketan ondorioz egindako aktetan adierazten den bezalaxe. Zerbitzu minimo horiek berretsi egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, errekurritutako 2016ko irailaren 19ko Agindua berresteko 2017ko martxoaren 24an emandako Epaiaren bidez.

Sektore honek gerora deitutako grebetarako, sei agindu eman dira -2016ko urriaren 21ean, 2016ko abenduaren 12an, 2017ko martxoaren 6an, 2017ko martxoaren 27an eta 2017ko apirilaren 25ean-, eta denetan irizpide berari eutsi zaio sektore honetan egiten ari diren grebetan aipaturiko langileek egoitzetan eman beharreko gutxieneko zerbitzuen portzentajeari dagokionez.

Lan eta Justizia sailburuak emandako agindua, 2017ko apirilaren 25ekoa, errekurritu egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, eta, 475/2017 Prozedura Arruntetik datorren Kautelazko Neurrien 54/2017 Prozeduraren barruan emandako 2017ko apirilaren 26ko Autoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak honako hau erabaki zuen, kautelaz: "errekurrituriko



Aginduan egoitzetarako aurreikusitako gutxieneko zerbitzuak % 80ra igo behar dira gerokultoreen eta parekatuen kasuan, soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan." Horren ondorioz, Lan eta Justizia sailburuak 2017ko apirilaren 26ko Agindua eman zuen, 2017ko apirilaren 25eko Aginduaren lehenengo ebazpen-atalaren 2.2 puntua aldatzeko –egoitzei dagokiena–, eta %80ra igo zuen gerokultoreen eta parekatuen kopurua, soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan."

Ondorengo aginduek, 2017ko maiatzaren 19koak eta urte bereko ekainaren 16koak hain zuzen, ezartzen zuen gerokultoreen edo antzeko arreta zuzena ematen duten langileen %70ek osatu behar dituztela gutxieneko zerbitzuak, ordutegi hauetan salbu: bazkal orduan, 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara. Ordu tarte horietan langile kopurua %10 handituko da. Gerokultoreen eta parekatuen kopurua %80koa izango da soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan.

Bestalde, 2017ko martxoaren 8tik 28ra deitutako grebarako, GESCA patronalak agerian jarri zuen arazoak gertatzen ari zirela harrera- eta sarrera-zerbitzuan, zerbitzu horretako langileek greban parte hartu zuten lekuetan. Horregatik, 2017ko martxoaren 6ko Aginduan, egoitzako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko –eta ez beste ezertarako– lanak gehitu ziren gutxieneko zerbitzu gisa. ELA sindikatuak gutxieneko zerbitzu horiek inpugnatu zituen, eta neurri hori eteteko behin-behineko kautela-neurria eskatu zuen. 2017ko martxoaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak autoa eman zuen, eta eskatutako kautela bereziko neurria ez abian jartzea erabaki zuen. Gerora, auzitegi horrek auto bat eman zuen, 2017ko martxoaren 14ko kautela-neurrien prozeduran, eta 2017ko martxoaren 6ko Aginduaren 2.9 zenbakia kautelaz eten zen. Horren ondorioz, 2017ko martxoaren 22an, Lan eta Justiziako sailburuak 2017ko martxoaren 6ko Agindua aldatu eta sarrerako langileei buruzko 2.9 zenbakia indargabetzeko agindua eman zuen. Zenbaki horretan, hauxe esaten zen hitzez hitz: *"Zerbitzu hori egoitzetako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunetarako soilik emango da, astelehenetik igandera; txanda bakoitzean, pertsona batek emango du zerbitzu hori, ohiko ordutegian"*.

Deitutako azken greban zehar, 2017ko ekainaren 19tik uztailaren 7ra artekoan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuak sektore horretako Bizkaiko bi egoitzatan egindako ikuskapen-aktak bidali ditu.

Azaldutakoagatik, eta, ezartzen diren gutxieneko zerbitzuak –dagozkion administrazio-izapideen ondoren– aldatzeko beharra eragingo luketen ustekabeko arrazoi berezirik sortu ezean, egoitzetan bere horretan uzten da gerokultoreen eta parekatuen % 70eko portzentajea, bazkariaren ohiko ordutegian eta 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara izan ezik, orduan portzentajea % 10 gehituko baita, salbu eta erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan, horietan %80ra igoko baita gerokultoreen eta parekatuen portzentajea.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu





eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- 1. Bizkaiko hirugarren adinekoren zentro pribatuen sektorean 2017ko uztailaren 8tik 2017ko uztailaren 31ra, biak barne, deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil badezakete ere, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatu beharko dira, horiek gutxieneko zerbitzutzat jotzen direlako, bai eta pertsona egoiliarren bizitza eta osasuna, haien beharren arabera, bermatzen dituzten zerbitzuak ere. Beraz, ohetik jaikiarazi eta oheratzeko behar diren zerbitzuak (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta) eman beharko dira, osasun-asistentzia ematekoak (botikak, sendaketak...) emango dira, baita oinarrizko higie pertsonala, elikadura eta botikak ere. Oinarrizko zeharkako arretako zerbitzuak ere gutxienez jotzen dira.

2. Jarraian aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jardura horiek:

2.1. Oro har:

2.1.1 Portzentajea kalkulatzeko:

- a) 1 baino txikiagoa bada, pertsona bat gehiago gehitu beharko da gutxieneko zerbitzuetako langileen kopurura.
- b) Eraitza pertsona 1 baino gehiago baina 2 baino gutxiago bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2 Artikulu honetan gutxienez hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretari.

2.1.3 Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen "bat datozen" gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten





langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxienerako zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4 Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez badu, behintzat, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei ematea ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak erabiliz eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi duten ahalik eta langile gehienek eskubide hori baliatu ahal izan dezaten. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5 Lehentasuna izango dute mendetasuna duten pertsonen higie pertsonalarekin eta horiei botika edo elikagai terapeutikoak ematearekin lotutako lanek –betiere, medikuek aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude–, horiek ez egiteak arrisku larria ekar dezake. Halaber, higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian.

2.1.6 Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketean arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak. Horretarako, Laneko eta/edo Osasunerako Arriskuen Prebentzioan jasotako xedapenak eta protokoloak izango dira erreferentziatzeko irizpide.

2.1.7 Garbitegian lan hauek baino ez dira egingo, eta hurrenkera honetan: lehenik, egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta, bigarrenik, arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan, arreta zuzena gauzatzen duten gerokultoreen edo parekatuen % 70 izango da lanean, bazkariaren ohiko ordutegian eta 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara izan ezik, orduan % 10 gehituko baita.

Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan, gerokultoreen eta parekatuen portzentajea %80koa izango da.

Gaueko txandan, arreta zuzenerako langileen % 100ak lan egin beharko du, baina «arreta zuzenerako» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

2.3. Eguneko zentroak:

Asteburukoak ez diren greba-egunetan, eguneko zentroetan zuzenerako arretako zerbitzuak eman beharko dira eta zuzenerako arreta hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 egongo da, baina gosaltzeko eta bazkaltzeko orduan ehuneko hori % 10 igoko da. Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.



2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekatuen % 50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, arreta zuzeneko langileen % 100ak lan egin beharko du, baina «arreta zuzeneko» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUDen % 50ek lan egingo du.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen % 20k lan egingo du. Greban, agindu honen 2.1.6 zenbakian aipatutako garbiketako lanak baino ez dituzte egingo garbiketako langileek.

2.8. Garbitegiko langileak:

Zerbitzu horretan, lan hori egiteko erabili ohi den lanaldiaren % 20 erabiliko da, 2017ko uztailaren 8an, 11n, 14an, 17an, 20an, 23an, 26an eta 29an, agindu honen 2.1.5 zenbakian deskribatutako zereginak egiteko.

2.9. Mantentze-lanetako langileak:

Jaiegunetan egoten den langile kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

Bigarrena.- 1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari nork bete behar dituen eginkizun horiek.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

Seigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka Aukerako Berraztertze Errekurtsoa aurkez daitekeela Lan Administrazioko Agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko uztailaren 5ean.



LAN ETA JUSTIZIA
SAILA
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA